

Iratzeak: zaletasunetik harantzago

Oaxacako egunerokoa
Jatorrizko izenburua: Oaxaca Journal
Egilea: Oliver Sacks
Itzultzailea: Jaione Alberdi Gabilondo
Argitaratze urtea: 2006
Argitaletxea: Gaiak Argitaldaria

MIKEL GARMENDIA

Hamar egunez Oaxacan barna egindako bidaiaren gorabeherak kontaktzen dizkigu Oliver Sacks neurologia-irakasle eta idazle arrakastatsuak eguneroko bizi eta, batez ere, pertsonal honetan.

AFS Ameriketako Iratze Elkarteko kide dugu Sacks eta elkarte horrek antolatua da bidaiaria. Egunez-egun kontaktuko digu hamar eguneko bidaiaria hamar kapitulutan, bidaiare izango duen kide iratzezale baten marrazkiak tartekatzen dituela.

Hasieratik bertatik sentituko dugu kontakizunarekiko eta egilearenganako hurbiltasuna. Hasieratik kutsatuko digu naturzaletasuna, landarezaletasuna, bizizaletasuna. Zaletasuna, bai, horixe baita giltzarria, Sacks-ek benetan transmititu nahi diguna, liburuaren hasierako eskaintzan bertan ezin argiago ageri zaigunez: "Amerikako iratze Elkartearantz, eta mundu guztiko landare-bilatzaile, txori-behatzaile, urpekari, izar-behatzaile, harri- eta mineral-biltzaile eta naturalista amateurrentzat". Gogor errefusatuko dizkigu gainera profesionaltasuna bekaizkeriaz, lehia desleialez, iruzurrez eta gisa horretara bizi dutenen jokabide eta jarrerak. Horien aurka, Hunbolt miresten du, Hunbolten jakin-min, grina eta zaletasun desinteresatua.

Ez da, ordea, iratzezaletasunean soilik gelditzen. Txundituta utziko du Oaxacak, onerako eta txarrerako. Aho bete hortz gelditzen da -eta irakurleoi ere sentimendu berbera kutsatzen digu- Oaxacako jendea, ohiturak, historiaren aurrean. Ez baita kontakizun liriko baten arriskuan erortzen, errealitatea bere osoan ikusten du eta halaxe digu transmititzen. Oaxacaren alderdi guztiak iristen zaizkigu kontakizunean: hiriburu aurreratua eta, horrekin kontrastean, txirotasun gorrian bizi den jendea, turismoa eta bertako populazioaren arteko kontrastea... Eta batez ere berak bizitako moduan helarazten digu istorioa, kontakizun pertsonala zinez. Miraz kontaktuko digu iratzea dela egun dugun landare zaharrena, hainbat eta hainbat espezie desagertzen ikusi dituen. Miraz kontaktuko digu mundu osoan badirela milaka iratze-mota eta gaiak ezertxo ere ez dakigunoi ere halako erakarmen handi bat sentiaraziko digu iratzeenganako. Miraz kontaktuko digu, halaber, nola bisitatu zuen Tuleko zuhaitz famatua (El Gigante), Hunbolt-en ustez lau mila urte inguru dituen zuhaitza, Hunboltek berak ere duela berrehun urte bisitatu baitzuen.

Argi salatzen ditu, gainera, kolonizazioaren basakeria eta haren ondorioak, Mexicoren historiari ere eskaintzen dio tarterik, besteak beste, Benito Juárez buruzagiaren figura gorestekoa.

Egunerokoaren apaltasun, benetakotasun eta xarmarekin sintonia perfektua lortzen du Jaione Alberdiren itzulpenak: ez alferrikako luzimendurik, ez errazkeriarik; ez da sumatu ere egiten itzulpena, ez da inolaz ere traba, eta hori, honezkero ondo dakigunez, oso seinale ona da.